

## ODENSE (DANIMARKA)

22/23 kurtsoko lehenengo lauhilekoan egindako mugikortasunaren puntu aipagarri batzuk ageri dira hemen

### BALORAZIO OROKORRA

---

Zalantzak izan nituen Erasmusean joan edo ez erabakitzeko momentuan. Ez naiz batere damutu. Topikoa badirudi ere, benetan esperientzia aberasgarria da, eta nire kasuan gutxienez, jende ikaragarri jatorra eta bizitza osorako gogoan izango ditudan bizipenak dakartzat.

### OSTATUA

---

Bertako unibertsitateak, SDUK, ostatu eskaintza bat egiten du ikasle bakoitzarentzat, hau da, ikasleak eskatu ezker, haiek ostatua topatzeko konpromezua hartzen dute. Izan ere, eskaintza bakarra egiten dute, eta haiek eskainitako ostatua nahi ez izatekotan, ikasleak berak topatu beharko luke beste aukera bat bere kabuz.

### BIZIKLETA

---

Ia-ia ostatua bezain garrantzitsua da Odensen (Danimarka osoan, egia esan). Tranbia modukoa hartzeko aukera baldin badago ere, argi eta garbi bizikleta da bertatik mugitzeko aukerarik hoberena.

Nire kasuan, 2. eskuko bizikleta bat erosi nuen ailegatzerakoan, eta hura saldu bueltatzean. Hala ere, badago "Swapfiets" izeneko bizikleta alokairu enpresa bat. Prezioari dagokionean, bizikleta erosi ta saltzea izango litzateke merkeena, noski; baino beste alde batetik, edozein arazo izatekotan alokairu enpresak hartzen du erantzukizuna. *Up to you ;)*

*(Swapfiets delako honetan, 20-25€ inguru ordaintzen dira hileroko bizikleta alokairuagatik, bestalde 2. eskuz badaude 50-100€ tartean topatu daitezkeen bizikleta dezenteak; eta hauek, DBA izeneko 2. eskuko merkatu aplikazio baten bidez, Facebook Marketplace delakoan edota Whatsapp-eko talderen batean galdetuz nahiko erraz lortu daitezke).*

### BIZIMODUA

---

- **UNIBERTSITATEA – SDU**

Bertako unibertsitatea primerakoa da; oso handia eta zerbitzu pilo eskaintzen ditu. Klaseei dagokionean, irakasgai bakoitzeko klaseak normalean 4 ordutako blokeetan antolatzen dira, tarteko atsedenekin noski.

Normalean lan-talde mordoak egiten da, eta azterketa final ugari ahozkoak dira, non 15 minutu inguruan, irakasleak kurtsoan zehar emandako kontzeptu nagusiei buruzko galderak egiten ditu (horretaz aparte, hauetako batzuetan aurkezpen bat ere prestatu egiten da). Orokorrean ez da asko sufritu behar irakasgai guztiak aprobatzeko, kontzeptu nagusiak nahiko argi izanez gero, nota dezente bat lortu daiteke; beraz, modu efiziente batean lan egin eta denbora eskaini kontzeptu garrantzitsuenak identifikatzeari eta horiek ongi ulertzeari.

Liburutegia izugarri handia da, eta bertan 3D inprimagailuak dituen gela bat dago, "FabLab" izeneko, non edozein ikaslek dohainik edozer gauza inprimatu dezakeen.

Unibertsitateak sarrera librea duen igerilekua badauka, eta nahiko merkea den gimnasioa ere bai.

Ostiraletan, unibertsitatean bertan taberna moduko bat antolatzen dute, "Friday Bar"; non musika, garagardo nahiko merkea eta ikasle pilo batzen diren. Guztiz gomendatuta nire partez. Nahiko goiz itxi egiten dute, beraz, jende asko hortik hiriko beste lekuren batera joan ohi da.

- **PARRANDA**

"Friday Bar" aparte, asteartero hiriko zentroan dagoen taberna batean, "Bodegaen", garagardo eskaintza bat egiten dute (8€ ordainduz, nahi bezain beste garagardo edan daiteke 20:00tatik 00:00tara) jende mordoa batzen da bertan, bai bertakoak, bai Erasmus ikasleak.

Ageri da Danimarkan garagardoa maite dutela, hala ere, nahiz eta hura gustuko ez izan, ez bota hatzera, aukerak beti daude. Bai "Friday Bar", bai "Bodegaen" primeran pasatzeko aukerak dira, eta batez ere lehenengo asteetan zehar, jende mordoa ezagutzeko aukera paregabeak.

Hiriko "club"-ei dagokienean, ezagunenak hurrengoak dira: "Old Irish Pub", "Butchers", "Boogies" eta "La Tequila Bar".

- **EROSKETAK**

Orokorrean, Danimarka nahiko garestia da. "Netto", "Coop 365", "Aldi" eta "Lidl" dira gomendatzen ditudan supermerkatuak, besteak pixkat garestiagoak dira.

### **DIRU KUDEAKETA**

---

Hasiera hasieratik gastu guztiak nonbaiten apuntatzen joatea gomendatzen dut, horrela gastuen jarraipen minimo bat eraman ahal izateko.

Horretaz aparte, "Revolut" edota "Wise" izeneko online bankutako batean kontu bat irekitzea oso oso gomendagarria da, Danimarkan beste txanpon bat erabiltzen baita (DKK) eta txanpon-trukea oso garestia izan ohi da beste edozein bankutan.

### **BIDAI GOMENDIOAK**

---

Aukera izanez gero, Danimarkan bertan Odense inguruko beste hiri eta herri batzuk bisitatzea gomendatzen dut, haien artean: Copenhage, Aarhus, Mons Klint, Skagen... Dena den, adi egon ESN Odensek antolatzen dituen irteeretara, askotan asteburutako irteera interesgarriak antolatzen baitituzte.

Horretaz aparte, iparralderago irteeraren bat egitea ohikoa izaten da, askotan Aurora Borealak harrapatzearen bila. Norvegia, Suedia, Laponia... norberaren erabakia, baino berriz ere, aukera izatekotan, animatu.

### **GOMENDIO OROKORRAK**

---

ESN Odense jarraitu sareetan, antolatzen dituzten ekintza askok pena merezi dute.

"Revolut" kontu bat ireki, eta nahi izatekotan txartela fisikoa eskatu mugikortasuna hasi baino lehen.

Galdetu dena... berriz ere, GALDETU EDOZER GAUZA, EDONORI. Orokorrean bertako jendea super jatorra da, oso atseginak; edozein zalantza izatekotan edo laguntzarik behar izatekotan pozik lagunduko zaituzte. Ez izan beldur.